

Gure hirurogeiak

Iñaki Aldekoa

UPV/EHU

Laburpena

Hirurogeiko urteetan gertatu zen gerraurreko belaunaldiaren erreleboa, zaharren eskuetatik gazteenetara igaro zen abiada bizian lekukoa, ikuspegi zaharrak eguneratuz. Mundu tradizionalaren balio moralak bilakaera etengabea murgildu ziren eta bilakaera horrek ordu arteko ikuspegi erlijioso, politiko eta sozialak pausarik gabe interpelatu zituen. Orduantxe jarri ziren abian geroago euskal kulturaren ondare bihurtuko ziren ia bide guztiak. ETA, erlijioso jendearen sekularitzea, Oteiza eta Ez dok Amairu...

0. Atarikoak

Gerraosteko lehen bi hamarkadekin alderatuz gero, 60ko urteak dinamikoak, biziak eta gatazkatsuak izan ziren. Aurrera egin ahala indarra hartzen doan olatu baten moduan irudika daitezke urte haiek. Gizarte, kultura, politika, ekonomia eta erlijioa, esparru guztiak busti zituen olatu horren burbuilak: Kuba, Aljeria, Vietnam, Che Guevara, The Beatles, Bob Dylan, Jacques Brel, anticolonialismoa, antiautoritarismoa, existentzialismoa, Martin Luther King, askatasun erlijioso, politiko eta sexuala, iraultza eta marxismoa, «68ko maiatza» edo unibertsitateen protestak Paristik Kaliforniaraino. Baita 1965ean Madrileko unibertsitatean kanporatutako irakasleak (Tierno Galván, José Luis López Aranguren, Agustín García Calvo...) edo Bartzelonako Sarrriako kaputxinoetan gotortutako ikasle, irakasle, artista eta intelektual (Salvador Espriu, Carlos Barral, Antonio Tapiés, José Agustín Goytisolo, Manuel Sacristán...). Gurean, ETA, Oteiza, Arantzazu, Aresti, Jarrai, GAUR, *Ez dok Amairu*, apaizen sekularizazioa, Txabi Etxebarrieta, euskara batua edo Burgosko epaiketak izan ziren hirurogeiko hamarkadan gertatutako lekuko eta protagonista nagusietako batzuk. Kanpoan eta hemen, hirurogeiko belaunaldia dinamikoa eta gaztea izan zen, ezkonformista, errebeldea eta utopiazalea. Eta «statu quo»aren aldaketaren aldekoa, antikapitalista, anticolonialista, eta abar. Askatasunaren (politikoa, morala, sexuala) aldarrikapena da 60ko belaunaldia definituko lukeen ikurra.

1. 60ko urteetako horizonte berriak: politikoa, erlijiosoa eta kulturala

Gure errelatorako efemerideak baliabide garrantzitsuak izango dira. Hirurogeiko hamarkadak urte mugarri asko izan zituen bere ibilbidean. Baina lehen-lehena 1959. urtea da. Urte horretan bi gertaera mugarri ditugu: ETA-ren sorrera, batetik, eta Aita Donostiaren omenez Aña gainean eraikitako monumentuaren inaugurazioa, bestetik. Politikoa bata, kulturala bestea. Biak ala biak eraberriketa zabal, eragingarri eta oparo baten sorburu; biak belau-naldi berri baten abiapuntu: protagonismo politikoa eta kulturala bere gain hartuko duen «Gaztedi berria»ren une historikoa. Une historiko horrek, baina, komentu eta elizbarrutietako gaztediaren sekularizazioa ezinbesteko baldintza zuen. Eta prozesu hori Vatikanoko II. Kontzilioaren ondoren gertatu zen. Fronte politiko, erlijioso eta kulturalaren arteko harremanak zabalak izango dira 60ko urteetan. Goazen, bada, harreman horien urratsak modu pausatuago batean aztertzea. Gaurkoan alde batera utziko dugu politikaren eragina, nahiz eta jakin badakidan erabakigarria gertatu zela ETAREN ibilbidea hirurogei, hirurogeta hamar eta geroago ere.

1.1. *Milurteko fedearen gainbehera*

Eliza Katolikoak bere *aggiornamento* berezia egin zuen Vatikanoko II. Kontzilioan (1962-1965), haren kritikak eta berrikuntzak apaiztegi, komentu eta elizak husteko bidean jarri zituen. Vatikanoko II. Kontzilioaren birtatez, katolizismoak eguneratu egin zuen mundu modernoarekin zuen harremana. Estatu frankistaren eta Vaticanoaren konkordatoaren (1953) ondorioz, katolizismoaren balore eternalen defendatzaile leial agertu zuen bere burua Espainiak. Gauzak horrela, Vatikanoko II. Kontzilioa puri-purian zegoela, Bilboko apezpikuak (Gurpidek) Unamunoren aurkako pastoralak argitaratu zuen. Esan gabe doa, katolizismoaren barruan Espainiakoa zela Elizarik atzerakoiena. (Urte berean, 1964an, Txabi Etxebarrietak koordinatuta, Unamunori eskaintako monografikoa argitaratu zuen *Sarrico* aldizkariak (Sarricoko Ekonomiako ikasleen argitarapena)). Baina, ez alferrik, gurean ere erlojuak eguneratzea eskatzen zuen, eta premia hori larriagoa zen gizarte industrializatueta, langileriaren aldeko borroka sindikalen eragina indartsuagoa zen eskualdeetan. Gero eta gehiago ziren Eliza ofizialaren aurka gizartearekin «konprometitu» beharra sentitzen zuten apaizak. Katolizismo soziala eta «konpromiso» hitza modan jarri ziren. Apaizak ere marxismoaz hitz egiten hasi ziren. Komentu eta elizbarruti askotako hazkurri espirituala ez zen aurrerantzean Eliza Ofizialaren (frankistaren) doktrina izango, baizik eta marxismoaren eta nazionalismo iraultzailearen bideak jorratuko zituen doktrina berria.

Jainkoaren eta Euskadiko langileriaren izenean (PTK: Pueblo Trabajador Vasco), apaiz kopuru handi bat Elizako hierarkiaren aurka (Gurpide eta Cirda apezpikuak) altxatuko da 68an, abuztuan Bilboko apezpikutza okupa-

tuz, eta azaroan Derioko Seminarioa. Donostiako Seminarioa itxita zegoen ordurako (1965ean ikasturtea klausuratu eta 1967an itxi), bertako nobizio askok (Mikel Azurmendi, Unai Dorronsoro, Txato Agirre, Jokin Apalategi) alde egin ondoren, nazionalismo berriaren (ETA) «deia»ri erantzunez. 1969an bost apaiz epaitu zituzten Burgosen hainbat elizgizonen atxiloketen aurka protesta egiteagatik. Horien artean ziren Xabier Amuriza eta Julen Kalzada.

Apaiz asko dira katolizismo sozialaren barrutik (Herri Gaztedi, JOC...) eta Kontzilioak eragindako espiritu berriaren ildoan fede/ideologia berriaren predikua egingo dutenak. Berehala mugimendu marxisten babesleku eta ETArako eta ezker muturreko talde berriak elikatzen («sestakoak») gune bihurtu ziren (ORT, OIC, MC, LKI, PT). 70eko hamarkadan langile mugimendu eta unibertsitarioen eragin handia izan zuten taldeak izan ziren. Imanol eta Axiary kantarien (edo Oskorriren) sentsibilitate soziala mugimendu horien babesean sortu zen. (*Ez dok Amairu* taldeko kideen ideario politikoa abertzalea zen, eta garaiko *eladioen* (ELA-BERRIren) orbitan ibili zen). Bazihoan, beraz, gaztedia elizetatik, etorkizun premiatsua aldeko gudaren deia jarraituz. Doktrina berrien deia zegoen jokoan, batetik, eta gaztedia kontrolatzeko ahalegina, bestetik. Katolizismo sozialaren bitartez, ordea, fede batetik besterako bidea egin zuen euskal gaztediak. Elizaren arrimura gertatu zen doktrina eta fede zaharraren eta berrien arteko transferentzia. Ordukoak dira, baita ere, elizetara iritsi ziren «ye-ye» estiloko gitarra eta halako moderno itxurak, baina ez zuten joera hori aldatuko. Elizaren irekitze eta modernizatze ahaleginak apalegiak gertatu ziren 68tik aurrera, izan ere, mundua irakiten egonik, zer egiten zuen gaztediak elizetako bankuetan kantari. Gaztediari eusteko saiaturako ahalegin guztiek huts egin zuten. Raimonen kantuak zioen moduan, «No saltres no som d'eixe món» (*Ez gara mundu honetakoak*).

Hirurogeiko urteen gurgilean abiada bizian ari zen gaztedia aldatzen, ikuspegi zaharrak eguneratzen. Mundu tradizionalaren balio moralak bilakaera etengabean murgilduta zeuden eta bilakaera horrek ordu arteko ikuspegi erlijioso, politiko eta sozialak pausarik gabe interpelatzen zituen.

Hamar urte lehenago, Arantzazuko basilika berritzeko proiektua plazaratu zen. Sáenz de Oiza eta Luis Laorgak zuzendutako arkitektura lanak 1955rako burutu ziren, baina Oteizaren Apostoluak bide bazterrean geratu ziren, fatxadako frisora igotzeko debekua noiz kenduko. Hirurogeiek eragindako bilakaera horretantxe ulertu beharko litzateke Arantzazuko basilika berriaren afera erlijioso eta politikoa, hasierako debekutik Oteizaren Apostoluen frisoko *Pietatea* burutzeraino (1951-1969) Arantzazuk jasandako bilakaera sinbolikoa. Salvatore Mitxelenak bere *Arantzazu, euskal poema* (1949) argitaratu zuenean Arantzazuk biltzen zuen sinbolismoa erlijiosoa zen. 1953an Font i Andreu apezpikuak basilikako lanak aldi baterako uztea agindu zuen. Bost egun lehenago Espainiako Estatuak eta Vaticanoak Konkordatoa sinatu zuten. Hilabete batzuk lehenago *Time* aldizkariak (cf. Gonzalez de Durana 2006) Francoren erregimenaren aurkako kritika gogorak egiten zituen, apezpiku katolikoek aldetik (Eliza ofizialetik) hark jasotzen

zuen babesarengatik, eta Arantzazu kultura, demokrazia eta sentimendu nazionalisten gotorlekua zela gaineratzen zuen. Artikuluak amaitzen zuen esanez, Arantzazuko santutegian frantziskotar bat geratzen zen bitartean, euskal kultura ez zela hilko. Bada basilikako lanak bertan behera uztearen agindua-
ren arrazoia *Time* aldizkariko artikuluak sorraraz zezakeen aztoramenduan ikusi duenik. Hala ere, ez dezagun ahaztu, beste leku askotan bezala, Franco paliopean hartu zutela Arantzazuko praileek, eta santutegia euskal kulturaren Montserrat-a bilakatzeko prozesua luzea izan zela. Esate baterako, lehen urteetako (1956-60) *Jakin* aldizkaria bera ere ez zen 60tik aurrera izango zena. Esan nahi dut Arantzazuko santutegia ez zela inoiz bloke konpaktua izan basilika berriaren arkitektura eta eskultura abangoardistari buruzko iritzian. Baina egia da gizartearen bilakaera politiko, erlijioso eta sozialak gaina hartu zuela santutegi barruko ika-mikei. Arantzazurekin hasi zen euskal artearen suspertzea, debeku, zentsura eta eragozpenez betetako susperraldia, ordea: batetik, errepide bazterrean utzitako Oteizaren «apostoluak», eta bestetik, Adan eta Ebaren bizkarraldearen nudismoa aitzakia hartuta, kriptako Baste-
rretxearen freskoek jasandako zigorra (karez zuritu ziren 1954an).

Oteizaren *Quousque tandem* liburuak jasotzen ditu Arantzazuko aferaren inguruko elkarrizketa eta gogoetak. Oihartzun dezentea izan zuen, baita ere, Jose Arteche katoliko integristak (eta Oteizaren lagunak) *La Voz de Españan* Arantzazuko lanak burutzearen alde argitaratutako artikulu andanak («Apóstoles en la cuneta», 1962).

Apostoluak bere lekuan jartzearen 1964ko debeku berriaren ondoren, honako hauxe adierazi zuen Oteizak: «El verlos (instalados) podría perturbarles su paz, esta paz que ellos cuentan por años y celebran hasta 25» (cf. Gonzalez de Durana 2006: 158) (Erregimen frankista ospatzen ari zen efemerideari buruz «25 Años de Paz. 1939-1964»). Adierazpen honetan ordu arteko diskurtso erlijiosoari dimentsio politikoa erantsi zion Oteizak: debekuaren atzean ez zegoen jada Eliza erreakzionarioa, baizik eta politiko erreakzionarioak. Egia esan, Eliza erreakzionario eta Estatu erreakzionarioa ogi eta jaki ziren. Ez dago poetarik Oteizaren harrizko isiltasun hutsari bertsorik eskaini ez zionik: Aresti (*Harri eta Herri*), Otero («Palabra en piedra»), Iratzeder, Gandiaga, Lete... 1968an eskulturak amaitzeko debekua erretiratzearen arrazoiak hauek dira Javier González de Duranaren ustetan: Vatikanoko II. Kontzilioaren estilo berria, Ama Birjinaren V. mendeurrenaren ospakizunaren gertutasuna (1969) eta seminaristen artean gertatzen ari zen sekularizazio masiboa. *Pietatea* 1969ko urriaren 21ean igo zen apostoluen frisorra, baina ordurako ez zen Ama Birjina oinean zuen semea negartzen, baizik eta Txabi Etxebarrieta-
ren heriotza. Bilakaera sinbolikoa 60ko urteek bizitako aldaketa sozio-politikoak eragina izan zen. Funtsean, erlijio zaharraren eta nazionalismo berriaren artean sakralizazio aldatze bat gertatu zen. 1976ko irailaren 8an, Goardia Zibilak Jesus Mari Zabala hil zuen Hondarribian. Hura salatze erabilitako hitzak («Zabala hil zuten») Arantzazuko *Pietatearen* gainean zeuden idatzita. Transferentzia sinboliko hori Arantzazuko igurtzi mitikotik ari zen elikatzen.

Nazionalismo zaharra, EAJrena, atzean geratzen ari zen, ez soilik fede zaharrari iltzatuta jarraitzen zuelako, garai berriak eskatzen zuen balioen eraldaketa ere ezin zuelako bere egin. Nazionalismo zaharra uzkur agertuko da, erabat kontra ez zenean, garaiko mugimendu eta ahalegin kulturalen aurrean. ETAren protagonismoaren eraginez, fronte politikoan gaudituta zegoen nazionalismo tradizionala. Kulturaren esparrutik, berriz, EAJk ez zuen begi onez hartu *Ama Lur* filma (1968), Fernando Larruquert eta Nestor Basterretxearen zuzendaritzapean egina. Euskara batuaren (Arantzazu, 1968) aurka agertu zen.

Elbira Zipitriaren lan eskerga, isila eta goiztiarraren ondoren, 1950etik aurrera bazen Gipuzkoan, euskara erdi ezkutuan irakasten zuten haurtzaindegi eta ikastolarik. 1955erako abian zen, beraz, ikastolen mugimendua (Txillardegia 1984: 49). Hala ere, hirurogeiko urteetan hartu zuen abiada eta bultzadak ekarri zuten ikastola gerora ezagutu zaion tamainara. 60ko hasierako hiru ikastoletatik 86ra pasatu zen 1969an. Ikastolen indartzearekin batera, Rikardo Arregik euskalduntze-alfabetatze mugimendua abiarazi zuen 1967an. Honek guztiak hizkuntza estandar baten premia erakutsi zuen, irakaskuntzaren erronkari (ikastolen alfabetatze programak, unibertsitatea) erantzuteko. Nazionalismo zaharra (EAJ) batuaren aurka azaldu zen. Baina euskara batuak idazle eta kultur eragile gazteen babesia jaso zuen. *Zeruko Argiak* bazuen «Gazte naiz» (1964) zeritzon atal bat, eta hura idazle berrien harrobi bihurtu zena: Ramon Saizarbitoria, Xabier Lete, Rikardo Arregi, Ibon Sarasola... 1964ko idazle belaunaldiaz hitz egin zen.

Txillardegiren eleberrietako existentzialismoak —*Leturiaren egunkari ezkutua* (1957), *Peru Leartzako* (1961) eta *Elsa Scheelen* (1968)— ezinegona eta errebeldia transmititzen zuen, gaztediak gertu sentitzen zituen sentipenak.

Nazionalismo historikoak gerraurreko mundu ikuspegitik jarraitzen zuen arnasa hartzen, eta hori, hirurogeiko urteetan sartuak, eragozpen bihurtu zen. Testuinguru horretan ulertu behar da Rikardo Arregiren aldarri ospetsua: «Euskaltzaleen jainkoa ill behar dugu» (1967).

1.2. Oteizaren Quousque tandem. *Eraginak*

«Delante, un día, de uno de estos pequeños crómlechs en el alto de Aguiña, preocupado por entenderlo, pensé en mi desocupación del espacio y repentinamente comprendí todo lo que aquel círculo vacío significaba. No sería fácil medir mi emoción al usar una estatua que durante tantos siglos no había vuelto a ser utilizada».

«Para un entendimiento del espacio religioso. El crómlech-estatua vasco y su revelación para el arte contemporáneo (*El Bidasoa*, 28 de junio de 1959). *Quousque tandem*, Donostia, Hordago, 1983: 95 (4. edizioa).

Aguiña gaineko momentu epifaniko horretatik, hau da, harri megalitikoak espazio erlijioso gisa irudikatzeetik, sortu zen Aita Donostiaren ome-

nez eraikitako kapera. Errebelazio horren ondorio da *Quousque tandem* liburuaren (1963) mezu profetikoa. Euskal antropologiaren sortzaileen (Telesforo Aranzadi, Joxemiel Barandiaran eta Julio Caro Baroja) eskolatik elikatuz hazkurri eraberritu, moderno eta adoretsua eskainiko dio Oteizak irakurleari. *Quousque tandem*-ek euskal kulturaren jatorriaren mitoa erakitzen du. Oteizarentzat zinezko kultura tradizionala da, baina bere meritua da tradizio hura jantzi modernoenez apainduta arnasberritzea. Paradoxikoa ere gertatzen zen abangoardiako artista baten ahotan tradizioarekiko halako atxikimendua agertzea (nahiz eta abangoardiak beti izan ohi duen arte zahar eta marginaletikiko begiramen berezia, Picasso bera adibide). Baina Oteizaren tradizioaren berreskurapen horrek, «izan ginena» eta momentuan «ginenaren» arteko lotura espirituala eraikitzen lagundu zuen. Esango du badela euskal estilo bat: «Pero en la tradición vasca hay un estilo que es, porque procede de un arte que se ha logrado concluir, todo lo que hace responde a un mismo y personal estilo... un estilo vasco que es el secreto de nuestra vida interior» (Oteiza 1983: 8). Eta esango du Europako arte prehistorikoaren amaiera neolitikoko euskal cromlech-ean gertatu zela. Eta hura izan zela gure egonezin existentzialistaren sendabidea. Garaiko artzainen (artzain neolitikoa) lorpena izan zela hura. Bertsolaria dugu gaur egun «estilo» hartatik gertuen legokeen euskalduna, eta bera genuke lehenaren eta orainaren arteko katebegi eta bitartekaria (Manuel Lekuonaren *Literatura oral euskérica* liburuaren erabilera oparoa egingo du, bertsogintza eta herri literaturaren gogoetagai bihurtuta). Bertsolaria da gure poeta, euskal arimaren estiloa galdu ez duen sortzailea. Pio Barojak ere euskal estiloa du, eta Basterretxeak eta Oteizak berak. Gure azaleko arima latino da, eta arima arrotz horrek gaina hartu dio arima jatorrenari. Nahiz eta euskal estiloa ez dagoen hizkuntzaren menpe, egia da «latinoa»k konnotazio kristau eta baita espainiarra ere badituela. Gauzak horrela, Pio Barojaren Jaun de Alzatek irekita utzitako bideari ez zaio bizkarrik emango, ezta neopaganismoaren xarmari ere.

Quousque tandem-en azpítituluak honela dio: «Ensayo de interpretación estética del alma vasca: su origen en el crómlech neolítico y su restablecimiento por el arte contemporáneo». Anjel Lertxundiren (2001: 130-131) iritzian, azpítitulu horrek asko zor lioke Barandiaranen *El mundo en la mente popular vasca* (1960) liburuari:

Begi-bistakoa da non dagoen Oteizaren ekarria: Barandiaranek *mente* jartzen zuen tokian *alma* jarri zuen Oteizak, beldur handirik gabe jarri ere. Barandiaranek lehenari buruzko behaketa, datu zehatzen deskribapena, enpirismoa jartzen zituen tokian, interpretazioa, ausardia, aurrera begiratzeko premia jarri zituen Oteizak.

Etengabe saiatzen da Oteiza cromlech neolitikoa eta euskara lotzen. Bere ustean, hizkuntzak gorde behar du lexikoaren erroetan kultura horren

zantzurik. Laguntza eskatu zion hainbat euskaltzaleri, haien artean Koldo Mitxeleneri, baina honek gutxi lagun ziezaiokeen bidaia horretan. Gure hizkuntzalari handia zientzia gizona zen, arrazoimena eta zorroztasun intelektuala zituenak akuilu. Oteiza, berriz, arimaren eta estetikaren ikertzailea genuen. Schlegel anai erromantiko alemanen antzera, bazekien egiak eta balioak deskubritu baino asmatu egiten direla, eta horixe baizik ez zuen egin Euskal Herriaren sustrai etniko eta estetikoak irudikatzen ahaleginean. Intuizio poetikoa arrazoimenaren gainetik zegoen Oteizarentzat; imajinazioa eta sorkuntza zientziaren gainetik. Garaiko klabean ulertuta, irudimena eta sormena ezkerago zegoen arrazoimena eta logika baino. Mitxelena aipatu ondoren, zera dio:

Si por prudencia y reserva científica (mal entendidas) faltamos con la intuición poética y el vuelo espiritual desde otros ángulos para la sospecha y la búsqueda, es que desconocemos la misteriosa naturaleza de la libertad poética de la creación que nos han legado los documentos históricos (el arte y el idioma) (Oteiza op. cit. 48).

Eta aurreraxeago: «La imaginación vasca está más cerca de la imaginación artística que de la lógica del pensamiento racional» (Oteiza op. cit. 50). Beraz, lilura sortzeko kamutsa eta hitsa den arrazoimenaren langaren gainetik salto egin eta «Hay que volver a soñar, a reimaginar un país como el nuestro con tal misterioso pasado» (Oteiza 1988: 71). Ezin ukatu Oteizaren interpretazio mitiko-poetikoa iradokitzailea zenik («El árbol de Guernica nace en el crómlech»; edo euskararen eta euskaldunen jatorriaz, eta abar). Eta abailduta zegoen herriaren aldeko ilusio eta harrotasun bat suspertu zituen. Haren metafora iradokitzaileak xarmatuta, bere burua altxatzeko tenorean jarri zuen kulturako jendea. Azken batean, amets egiteko tresna mitikoak, poetikoak edo irudimenezkoak eskaintzen zizkigun Oteizak liburuan. Eta, besterik ezean, horri heldu zion hain zuzen artista eta kulturako jende askok, eta frankismopeko giro itogarri hura gainditzeko eta iraultzeko legamia bihurtu zen. Horra nola ikusi zuen gaia A. Lertxundik:

Behingoagatik, gugandik beti urruti ibili ohi zen modernitate kutsuko alor batetik —estetikarenetik— zetozkigun loreak eta onarpenak, eta, behingoagatik, eder ikusi genituen geure buruak ispiluaren aurrean. Abailduta zegoen herriak harro puntuko suspirio halako batez hartu zuen Oteizaren jarduna. (Lertxundi op. cit. 135)

Geroago aitortu zuenez (Ugarte 1996: 38), Oteizak ez zuen behin ere ukatu berea birsortze mitologiko bat izan zenik, beharrezkoa ordea garai historiko hartan, Euskal Herriko kulturaren egoera lazgarria halakoren faltan ikusi zuelako. Hirurogeiko urteetako ekimen kultural gehientsuenetan suma daiteke haren itzala. GAUR, *Ama-Lur* filma, Ez dok Amairu.

2. *Ez dok Amairu*

Entre fenómeno pop y canción-protesta se refundó la música étnica, el folksong, con Pete Seeger, Baez, Dylan, Violeta Parra... Vasconia era terreno abonado; la canción tradicional se entonaba en los coros, pronto pasó a los conjuntos, a los solistas, a la par que al inglés, generalizado a nivel mundial. (Estornés 2013: 254)

Hirurogeiak ezin dira musikaren eraginik gabe ulertu. *Pop* musikaren ez-tanda izan zen, Elvisena eta The Beatles-ena (1965ean Madrilera etorri ziren). Los Xey hirurogeiko belaunaldi gaztearen gurasoen sasoikoak ziren. Zaharrak, beraz; parrokietako abesbatzak eta zortzikoteak bezainbat. Hirurogeiko hasierakoak dira Los Contrapuntos azkoitiarrak, edo Mucedades talde bilbotarra, baina baita Urretxindorrek ere, beren *Aitorren hizkuntza zaharrarekin* (Estornés op. cit. 254-255). Baina Bob Dylan eta Joan Baez-ekin gertatu bezala, gurean ere kantaria gitarra soilarekin igoko da oholtzara eta mezu sozial eta existentzialismo igurtziko *popa* kantatuko du. Gure kantautoreak ziren. Beste hainbat esparrutan bezala, ezin aipatu gabe utzi Nemesio Etxanizen (*Kanta kantari*, 1951) bitartekaritza gaztediak hazkurri musikala bere hizkuntzan izan zezan. Beti trantsizioko, eta beti uhinak gainetik gainditu eta irentsia. 1958an Bilbon Txabi Valverde eta Robles-Arangiz anaiek Soroak taldea sortu zuten, abesti tradizionalak eta atzerrikoak euskaratuz. Hauen arrakastaren lekukoa Michel Labeguerie (1963) kantariak hartuko du, *Ez dok Amairu* taldearen aitzindari zuzena bilakatuz. Ezin aipatu gabe utzi kantari lapurtarraren *Gu gera Euskadiko gazteri berria* hura (Oronoz 2000).¹ eta Xabier Leteren elkarrizketa).

Handik gutxira, 1964 eta 1966 bitartean, Lourdes Iriondo, Benito Lertxundi eta Mikel Laboa agertu ziren. Azken honek 1964an zuen grabatua bere lehen diskoa (*Azken*). Geroxeago etorri zen Lete. Kantari bakoitzak bere gustu eta eraginak zituen: Mikel Laboak (Atahualpa Yupanki eta Bob Dylan), Xabier Letek (George Brassens eta Jacques Brel), Benito Lertxundik (Elvis Presley eta The Shadows), Lourdes Iriondok (A. Yupanqui eta Joan Baez).

Medikuntza ikasketak amaitu eta bere espezialitatea haur neuropsikiatria zela eta,artzelonekin harreman estua izan zuen Mikel Laboak 1964-1965ko urteetan. Han ezagutu zuen *Nova Cançó* katalana, eta 1965ko udaberrian, Jorge Oteiza, honek «Fronte kulturalaz»artzeloneko euskal unibertsitarioei eskainitako hitzaldi batean. Harengana jo zuen 1965eko udazkenean, buruan zerabilen kantagintzari buruzko asmoa aurkeztera, eta *Ez dok Amairu* izenarekin bueltatu zen etxera (urte haietan Herri Irratitik Joxemari Iriondoren babes handia jaso zuen taldeak). R.M. Azkueren *Euskalerraren Yakintza* liburutik hartutako Martin errementeriaren istorioan dago taldearen

¹ Ikus, baita ere, Ibarzabal (1978).

izenaren sorburua. Taldearen bedeinkapena Oteizarena; taldearen logotipoa, txalaparta bat (Artze anaiak ziren txalapartariak), Remigio Mendibururena, biak ala biak GAUR taldekoak. Hernanin eta Jarrai antzerki taldearen eskutik Donostiako Victoria Eugenia Antzokian eman ziren ezagutzera 1966an, baina taldearen aurkezpen ofiziala Irungo Bellas Artesen izan zen, 1966ko martxoaren 20an. Jaialdiaren hasieran *Martintxo errementariaren* ipuina irakurri zuen Xabier Letek, *offean*, aretoko argiak itzalita, eta kanta sortaren ondoren, *Pelotari* filma (Nestor Basterretxearen eta Fernando Larruquerten zuzendaritzapean 1964an Gernikan estreinatua) eman zuten. Oteiza ere bertan zen, eta elkarrekin bazkaldu ondoren, arratsaldeko partez, Aita Donostiari eskainitako eskultura bisitatzea igo ziren Agiña gainera (Lete 2006: 15).² *Aste Kulturalak* zirela eta, izan zuten esparru artistikoen artean harremanik (Jarrai taldearekin eta Jose Luis Zumeta bezalako artista plastikoekin). Taldearen espirituari dagokionez, *Quousque tandem* saiaturako bideetatik ibili ziren, kantu zaharrak, hizkuntza eta herri-kontzientzia berreskuratze ahaleaginean, hori bai, kantutegi zaharreko ondarea arnasberrituz eta molde moderno batean eskainiz. Oteizaren liburuak duindu egin zuen bertsolaria, haren merezimenduak goratuz. Ez zen Oteiza lehena bide hori saiatzen, ordurako Aresti ere bide beretik zebilen, gogoratu «Bizkaitarra» (1958) poema edo *Harri eta Herri* (1964) liburu arrakastatsua. Ez zuten besterik egingo *Ez dok Amairukoek* Xenpelar, Udarregi edo bertsolari zahar eta herrikoiekin. Salaberryk, Manterolak, Riezuk, Azkuek, Aita Donostiak jasotako kantutegietan zegoen bilduta gure ondare tradizionala, Manuel Lekuonaren *Literatura oral euskérika* ahaztu gabe, Oteizak hain estimatua zuena. Telesforo Aranzadiren lanean aurkitu zuen Oteizak baserritarraren belarriak sorgintzen zituen gurdiaren kirrinka hotsaren lilura. Seguru asko hara jo zuen, baita ere, Lauaxeta poetak, bera ere liluratu baitzuen «burtzain» gurdiaren kirrinka hotsak, *Arrats-Beran* (1935) poesia liburuko «Burtzaiña» poemak erakusten duen moduan. Aranzadirenean bezala, *Ez dok Amairuko* poetek Oteizaren *Quousque tandem* liburuan bertan aurkituko dute inspirazio hazkurria bere poesietarako. Aipagarriena 1969an Joxean Artzek argitaratutako *Isturitze-tik tolosan barru* poesia liburua. Izturitzeko arpetan aurkitutako «txistuaren» (munduko musika tresnarik zaharrena, Oteizaren esanetan) aipamena dakar Oteizaren liburuak, edo «txalapartaren» erritmo natibista eta paganozalea (Oteiza 1983: 132). Pierre Lafitte kalonjearen hitz kristauak Mariren, gure mendietako jeinuaren, legera iraultzen ditu atariko poeman, liburuaren asmoa ezkutatu gabe. Hurrengo poeman Mariren jeinuak euskaldunak gatibu izan dituen «Euskaldun fededun» esapide tradizionala birrinduko du, «gizakume eta kristaua» bateratzen dituen moralarekin batera, «bestela gure asaba zaharrak haserretuko direla eta». Txalapartarekin eta Mariren jeinuaren konjuroarekin batera zabalik ge-

² Liburu bereko azken elkarrizketan honako hau aitortzen da: «Oteizaren *Quousque tandem* liburuak trastornatuta utzi ninduen.» (Lete 2006: 174).

ratzen da «neopaganismoaren» bidea. Azken batean, kristautasunaren moral estu eta gatibutik askatzeko garrasi bat zen Artzeren poema liburua. Xabier Letek ere eskaini zion Pio Barojaren *Altzateko jaunari* (abestia) bere omenaldi partikularra. *Isturitzetik tolosan barru* liburuaren paratestuak informazio ezin hobea emango dio irakurleari barruko mamiaz: esperimentazioa eta orden moral tradizionaletik haustura, akelarrearen iruditeriaz apaindua eta sexu gozamerako Etxepareren mezu transgresorean beratuz. Sexualitatea tabua zen 60ko urteetako moral esturako. 1971n gazteen akanpada-kontzertua egin zen Larraitzen (han ziren Artze anaiak, Mikel Laboa eta Benito Lertxundi). Gaupasaren berri eman zuten egunkariei kasu egitera, han gertatuak akelarrearen itxura osoa zuen, orgia eta guzti; txalapartaren «txu-khun» oteziar natibistaren deiari jarraituz bildu zen gazte jendea maitasun librean igaro bide zuen gauera. Baina bertako lekukoen esanetan inork ikusi ez, gertatu «omen» ziren. Eta seguru naiz gertatu zirela, baina, garai bateko inkisidoreen buruetan gertatu bezala, oraingo honetan apaiz, nazionalista tradizional eta, oro har, hara hurbildu ez zen ortodoxia atzerakoiaren irudimenean gertatu zen (Iparragirre 2001). Gure «maiatzaren 68» propialak urtetxo batzuk gehiago behar izan zituen sexu harremanak normalizatzeko.

Lourdes Iriondo eta Estitxu kantariak bai, baina non zeuden orduko emakumeak? Idoia Estornesek (op. cit. 345) dioen bezala «Vascolandian bazi-zen feministak baina ez feminismorik». Egile berak (op. cit. 498) jasotzen du 1968ko eslogan hau: «Ba al dago soldadu ezezaguna baino ezezagunagorik? Bai, emakumea». Ez dezagun ahaztu Simone de Beauvoir-en *Le Deuxième Sexe* (1949) liburua 1957an itzuli zela gaztelariara (Buenos Airesen). Baina Frantziako mugaren hurbiltasunak abantailarik izan zuen zenbait irakurketa moderno «debekatu» frantsesez egin ahal izateko. 1969an legelizatu ziren antisorgailuak Frantzian, eta *pilule* famatua emakumearen askatasunaren ikur bihurtu zen (Estornés op. cit. eta Landa 2007).

Urte haietan modan jarri ziren *Aste kulturalak* zirela eta, *Ez dok Amairu* euskal kultura moderno eta antifrankistaren erreferente garbia bihurtu zen publiko zabal batentzat. Erreibindikazio politikoa eta kulturala batera agertuko dira, binomio baten aurkia eta ifrentzua bezala. Euskaraz kantatzea bera ekintza kultural bat zen frankismoan, baina *Ez dok Amairu*ren kasuan areagotu egingo da hori, euskal kantagintza berri horren muinean klabe modernora bihurtutako tradizioaren berreskurapen eta interpretazio berria zegoelako. Eta, jakina, haien kantetan egosten zen mezu ezkutua mezu antifrankista, askatasun indibidual eta kolektiboaren aldeko aldarria zen. Eta kantari eta entzuleen artean halako konplizitate bat zegoen, non eta entzuleak bazekien kantarien hitzak mezu kodetuak zirela («txoria»k, esate baterako, askatasunaren metafora gisa funtzionatuko zukeen. «Txoria» preso dago, bahituta) eta beste zerbait adierazten zutela, askatasuna eta justiziarekin edo gizakiaren aldarte existentzialistarekin (hauek ere kezka ezkertiar eta modernoak) lotutako esanahia zutela. Kode sekretua zentsura saihesteko bidea zen. Ez dezagun ahaztu 1968tik aurrera debekuean egon zirela *Ez dok Amairuko*

kantari batzuen emanaldiak, diskoen argitalpenak, edo beren kanten izenburua aldarazi zitzaizela (Benito Lertxundiren *Detroit ez*, adibidez, *Ez kanta, beltza* bihurtu zen). Garaiko *Aste kulturelek* dimentsio politiko bat ere bazuten. Bertara hurbiltzen zena fronte antifrankista batera hurbiltzen zen, eta egoera politiko, kultural eta morala iraultzearen alde egin nahi zuen lan, gizartearen balio zaharrak balio berrietara bihurtzearen alde. Gaztedi berriak gizarte berria zuen helburu. ETako aktibistak *Ez dok Amairuko* emanaldirik ez zuen galduko (Onaindia 2001: 396), eta emanaldi horietara hurbiltzen zen jende askok eta askok lagunduko zuen 1968tik aurrerako ETaren ibilbidea. Poetek kantariantzako hitzak idatziko dituzte. Gabriel Arestiren *Harri eta Herri* (1964), 60ko hamarraldiko poesia libururik enblematico eta nagusienak, irakurleen aldetik erantzun ona izanik ere, ezin konparatu egile beraren «Egun da Santi Mamiña»k Laboaren ahotan lortutakoarekin. 1970ean «Baga, biga, higa» proiektua aurkeztu zuen *Ez dok Amairuk*, «Sentikaria»z ere eza-gutua den ikuskari eszeniko osoago eta bateratuagoa (dantza, musika, plastika, txalaparta...). Joxean Artze zen espektakuluaren zuzendari artistikoa. 1970-1972 urteetan «Sentikaria» proiektuaren inguruan bildu ziren taldeki-deak, eta 1972ko Eguberrietan taldea desegin zen. Xabier Leteren hitzetan esateko, estetikoki, *Ez dok Amairuren* lorpenik handiena izan zen proiektua, eta baita taldearen amaiera ekarri zuena ere. Arrazoi politiko-ideologikoek eragin handia izan zuten taldearen desegitean, baztertu gabe beren arteko asmo artistikoen gorabeherak (Ibarzabal 1978).

3. Azkena

Eragile izugarria izan zen Oteiza. Bere *Quousque tandem* liburuak bazter guztiak astindu eta nahastu zituen, eta bere eztanda uhinak politikaren, sinesmenaren eta kulturaren bazter guztiak inarrosi. Ortodoxia guztiak geratu ziren bere onetik erazuta. Eta hori, sinesmen, poesia, dantza eta musikarekin gertatuko da euskal munduan. John Cage (isiltasunaren musikaria) *Quousque tandem* liburutik Joxean Artzeren poesiara pasatuko da. Eta Agiñako parajeak ere sakratuak bihurtuko dira Artzerentzat Aita Donostiari eskainitako omenaldiaren ondoren. Mikel Laboaren errautsak ere hantxe haizatu ziren 2008ko abenduaren 8an, Oteizaren lur sakratuan. Egun berean aitormen hau egin zuen Joxean Artzek: «Duela berrogei bat urte Agiñako paraje honetara igo nintzen lagun batzuekin, ‘gure arbasoen espiritu sakratua sentitzera’. Behe-lainoa zegoen, behe-laino itxia, orduantxe idatzi nuen ‘Maite ditut, maite, geure bazterrak» poema.» Mikel Laboaren ahotan ezaguna bihurtu zen poema-kanta. Beste hainbeste esan genezake Bitoriano Gandiagaren *Hiru gizon bakarkako* (1974) azken zatiaz, «Artasoko salmoak», lurrarenganako maitasun erakustaldi hori erlijiotasun tradizionalaren mugak gainditu eta, apoteosi panteista batean, erlijio estetiko-telurikoan murgiltzen da (Aldekoa 2008).

Oteizak kulturako jendearen ahalegin eraberritzaile gehienak suspertu, katalizatu eta kitzikatu zituen. Animatzaile paregabea gertatu zen. Hala ere, Iñaki Beobidek zuzendutako «Jarrai» taldeak antzeztutako obren erreperatorioari erreparatuko bagenio (Tennessee Williams, Max Frisch, Arthur Miller, Albert Camus, Xalbador Garmendia, Gabriel Aresti), ez genuke lan erraza izango Oteizaren ideia nagusien eraginik aurkitzen.

Elkarren arteko losintxak gorabehera, laster konturatu zen Aresti ere Oteizarekin zuen desadostasun sakonaz. *Harri eta Herri* (1964) liburukoa lausenguak baino Oteizaren Agiñako «harri»-en mistikari egindako kritika ironiatsua da (Aldekoa (1993: 77-79). Eta Bartzelonako unibertsitarioen aurrean Jorge Oteizaren euskararik gabeko euskalduntasunaren mistika salatu zuen, eta gauza bera «Pelotari» filmaz (Izagirre 1996). Gogaitu egiten du gure poeta profetaren errealismo faltak, diren gauzak bere izenez aipatu beharrean, «espiritua» bezalako hitz lausoez baliatu beharra «euskalduntasuna» definitzeko. Halako estrategiak susmagarriak gertatuko zaizkio Arestiri, hizkuntzaren ezagutza eza ezkutatzeko trikimailuak. Ez zituen Mitxelena ez Aresti (ez Ramon Saizarbitoria ez Ibon Sarasola) Oteizaren mistifikazioak sorgindu.

69an Lur argitaletxea sortu zen, eta hantxe argitaratu zen Ramon Saizarbitoriaren *Egunero hasten delako*, abortuaren aldeko mezuarekin. Saizarbitoriarenak ez zuen gurean egiten zenarekin eta bertako idiosinkrasia kulturarekin harremanik. Forman eta muinean, pertsonaiak eta lekuak, europarrak ziren. Artean ez zegoen euskal irakurleria (apaizkeria eta sekularizazio traumatikoa katramilatua) Saizarbitoriaren nobela irakurri eta literarioki dastatzeko heldua. Aresti buru zela, Lur-eko partaideak (R. Saizarbitoria,³ A. Urretabizkaia, I. Sarasola, eta abar) «españolista»tzat hartuak izan ziren gorpuzten ari zen kultura abertzale berriaren ortodoxiaren aldetik. Erlijioaren jarrera sektario berbera zen nagusi joko-zelai ideologiko eta politikoan zebilena, abertzaleen artean izan, marxisten artean izan. Gogotik jasan behar izan zuen hori 1970etik aurrera, Arestiren ingurutik plazaratutako Oskorri taldeak.

Aipamenak

Aldekoa, Iñaki. 1993. *Zirkuluaren hutsmina*. Irun: Alberdania.

Aldekoa, Iñaki. 2008. *Euskal literaturaren historia*. Donostia: Erein.

Aresti, Gabriel. 1964. *Harri eta herri*. Zarautz: Itxaropena.

³ Ramon Saizarbitoriak *Zeruko Argiako* «Gazte naiz» atalean idatzi zuen (1966/05/15): «Egunen batean, Oteiza'rekin mintza nahi nuke, gizonak, borondate onez ere, kalte egin lezakeala esateko... Eta lehen bihotza kezka bete zuten batzuek, gaur kromlecharen utsuneaz bete dutela esateko. Hemen ikusten denez, sensibilidadadedunak, utsuneak betetzen ditu... Ideial sendo batekin bete behar diren buru utsak, utsez betetzen ez dedilla inor alegindu. Lehendabizi, lehendabizikoak...»

- Estornés, Idoia. 2013. *Cómo pudo pasarnos esto*. Donostia: Erein.
- Gonzalez de Durana, Javier. 2006. «Basilica de Aranzazu. Mito y secreto». *El nacionalismo vasco: mitos, conmemoraciones y lugares de la memoria, Historia y Política* 15. Madril.
- Ibarzabal, Eugenio. 1978. *Elkarrizketa* (Xabier Lete). Herria Irratia. 1978ko maiatza.
- Iparragirre, Pilar. 2001. «Larraitz 1971: orgia bat edota hala moduzko gaupasa». *Argia*. 2001/11/11.
- Izagirre, Koldo. 1996. *Gure zinemaren historia petrala*. Zarautz: Susa.
- Landa, Mariasun. 2007. *Festa aldameneko gelan*. Donostia: Erein.
- Lertxundi, Anjel. 2001. *Mentura dugun artean*. Irun: Alberdania.
- Lete, Xabier. 2006. *Abestiak eta poema kantatuak*. Donostia: Elkar.
- Onaindia, Mario. 2001. *El precio de la libertad. Memorias (1948-1977)*. Madril: Espasa.
- Oteiza, Jorge. 1963. *Quousque tandem*. Zarautz: Hordago, 1983 [4. edizioa].
- Oteiza, Jorge. 1988. *Cartas al príncipe*. Zarautz: Itxaropena.
- Oronoz, Belen. 2000. *Gazteri berria. Kantagintza Berria*. Donostia: Erein.
- Saizarbitoria, Ramon. 1966. «Gazte naiz». *Zeruko Argia*. (1966/05/15)
- Txillardegui. 1984. *Euskal kulturaren zapalketa. 1956-1981*. Donostia: Elkar.
- Ugarte, Luxio. 1996. *La reconstrucción de la identidad cultural vasca. Oteiza/Chillida*. Madrid: Siglo XXI.